

Leihatila ① PAULO AGIRREBALTZATEGI (Idazlea)

Eujenio Agirretxeren heriotza. Herenegun zendu zen idazle eta erlijioso frantziskotarra, 85 urterekin. Gasteizen eta Erroman soziologia ikasi ondoren, *Anaitasuna*-n eta *Goiz Argi*-n kolaboratu zuen. Ondoren, Arantzazuri loturiko lau lan eta *Zamalbideko elizaren kondairatxo*a idatzi zituen. 2000. urtetik ohorezko euskaltzaina zen.

Jendarteko profeta

Bibliako profeta haiei buruz ari naiz, edo haien eredutara gure gizartean jardun ohi dutenei buruz: munduarentzat esperantza-mezuarekin batera, jendeari arrazoi etiko-kritikoak etengabe aurkezten saiatzen diren horietakoei buruz, alegia.

Bada, baina, profetarik jendeari urrundik mintzatzen zaionik, mendi goienetik edo; jendeak ezagutu ere egiten ez duen urruneko profeta, agian inoiz ikusi ere egin ez duena. Bada profetarik jendeari aurrez aurre mintzatzen zaionik, aldare edo ohol-tza gainetik; eta bere jarduna amaitu orduko, komentuko gelara, laneko bulegora edo egoitza sozialera biltzen dena: hurrengo agerraldira arte. Bada hirugarren motako profetarik ere: jendartetik bezala entzule-taldeari mintzatzen zaiona, eta bere hitza zuzendu eta bere mezua jaulki orduko, jende artean nahasten dena.

Hirugarren horietakoa zen Eujenio Agirretxe. Eta elizako pulpituak (jaietako sermoiak edota bederatziru-renak), nahiz udalaxeko balkoitik (herri-misioak eta), nahiz bidetako furgonetatik (gazteen Arantzazuko gau-igoeretan, adibidez) mintzatu, inguruan bildutako entzuleei, jendearen tar-tean sentitzen zuen bere burua; eta tar-tean egote horrek inspiratzen eta berotzen zuen.

Jendarte handitako sermolarik gazte sutsua zen Agirretxe hark jendarteko profeta jarraitu du beti bere bizitzako ibilbide eta jardun osoan, jendaldean «gidari» entzutetsua ageri zenean eta kristau elkarte eta talde txikien hurbil-hurbileko animatzaile saiatua izan denean. Lagunarteko harreman pertsonalaren metodo profetikoa benetan sinesten zuen Agirretxek; horren adibide dira, besteak beste, gutun pertsonalak idatzeko eta gaixoei bisita labur baina adeitsuak egiteko ohitura eta emana. «Sinpatiarene» metodoa esango luke baten batek, nahiz eta profeta serio eta latzaren itxura eraman sarritan gure gizonak. «Aizkorakadaz lan-

dutako aurpegia» zuela esan zuen norbaitek.

Hitzeko gizona zen Eujenio, leialtasunean leiala. Eta hitzaren gizona zen, hitzaren berezko indarrari indar berria jartzen zekien hizlaria, mintzatzean nahiz idaztean. Eman nahi zuen mezuaren indarrean sinesten zuen; eta trebea zen, bere hitzaren indar beroarekin sinesgarriagoa egiten zuena.


Profeta kritikoa zen Agirretxe, itxaropena zabaltzen zuenean ere. Sermolarienez, hizlari panegiristaren antitesia zen Eujenio. Eta bere bizitzan ere, esan daite-

Agirretxeren eztenkadak, edozein lagunarteko elkarrizketatan edo bileratan ere: inoiz ez zauri sakon mingarrikoak, baina bai gogaikarriak batzuetan.

Kezkatan kezkatua bizi zen etengabe Agirretxe: fraideen artean, lagunengan, Elizan, gizartean, Euskal Herrian, munduan kezkarri zen edozerk kezkatzen zuen bera barru-barrutik, eta arduraz haritzen zituen denak. Kezka horiek jaulki ohi zituen bere hitzaldi eta idatzietan eta ardur horie irtenbidea ematen saiatu ohi zen ekimen berriekin beti.

Kezka ugari bezala, maitasun handiak izan zituen Agirretxek bere bizitza osoan, inoiz ezkatu ez eta beti aldarrikatu ohi zituenak: Euskal Herria eta Euskara, baserria, baserritarrek eta jende langile oro, Jesukristo eta Elizarekin batera. Eta pozak eta ametsak ere handiak izan ohi zituen. Honela dio nolabait bere bizitzako konfesio-liburu duen *Aldi hartan eta Arantzazu inguruan* tituluko liburuan, bere bizitzako pozaldiei buruz diharduela: «Hala ere pozik haundiena etortzekoa zen: Eliza Amak nire bizi guztian eman didan pozik ederrena eta betegarriena halako batean (...) hasi zen Vatikanon II.a izeneko Kontzilio hura izan da. Hark bete gintuen itxaropenez eta ilusioz» (90. or.).

Zuzeneko autobiografiarik ez du idatzi Agirretxek, baina aipaturiko liburu hori bezala, beste liburu eta aldizkarietako idatzi guztiak eta haren hitzaldiak autobiografikoak dira funtsean: bere bizitzako eta garaiko kezka, ardura, poz, maitasun eta ametsen ispilu. Izatez, hiltun eta hizlariaren ahots ozenaren oihartzunarekin batera, idatzirik asko utzi du Agirretxek, euskaraz gehienak: liburu eta artikulua argitaratuak, batetik, eta ardura eta kontu handiz idatzi ohi zituen sermoien eskuizkribuen karpeta ugariak, bestetik: zalantzarik gabe aztertzeak direnak, garai katramilatu eta aldakor bateko Elizaren eta gure gizartearen eta Herriaren ibilbideak ezagutzeko.



EL DIARIO VASCO

ke, esan, etengabeko «krisian» bizi zela: inoiz ez lasai eta «konforme», ez bere buruarekiko, eta ez inguruko lagunekiko, jendearekiko eta gizartearekiko. Konformismoaren etsai porrokatua. Edonolako iritzi, jarrera edo jokabideri bere kontrapuntu kritikoa jarriko zion, eta kontrapuntuari kontrapuntua. Uste izatekoak ziren

LITERATURA

Gatuzainek liburu berriak errazkiago kaleratzeko harpidetza kanpaina abiatu du

NORA ARBELBIDE - BAIONA

Hamar bat liburu berri prestatzen ari da Gatuzain Baionako argitaletxea, aurki karrizkatzeko asmoarekin. Eta, liburu berri horiek plazaratzeko, harpidetza kanpaina bat jarri du abian, era horretan errazagoa izanen baitaio liburuak egin eta kaleratzea.

Gaur egun 100 bat harpidedun baizik ez du Baionako argitaletxeak, eta 400 harpidedun izan nahi litzuke. Hilean lau euro ordainduta, urtean lau liburu eskura ditzakete Gatuzaineko harpidedunek; hiru liburu frantsez, eta laugarrena, euskara.

Haurrentzat, euskarazko hiru liburu

Orain esku artean dituen hamar liburuek gai diferentek jorratzen dituzte. Etxebizitza buruz, Action Directe mugimendua, gerraren negoziak eta Iparretarrak erakundearen historiari buruz argibideak eskaintzen dituzten argitalpenak izanen dira berri horiek, besteak beste. Batzuk euskarazkoak dira, eta besteak, frantsesezkoak.

Literaturako liburuei dagoenikenez, haurrentzako liburuetan dago bereziki espezializatua Gatuzain argitaletxea. Alor horretako hainbat obra ari da orain prestatzen. Edurne Alegriak euskaraturik, *Munduko hamar ipuin, norberaren eta bestearen heziketarako lagungarri* liburua plazaratuko du Gatuzainek. Eta, horrez gain, Iraultza Partarriek idatzirik bi liburu: *Laminek mundua* eta *Izar* izenekoak, hain zuzen.

zure udako

matraka.info

Zure uda nolakoa den jakin nahi dugu, zein kontzertutan izan zaren, non pasatu dituzun opor egun batzuk...

udako **matraka.info**

Bidali zure kontakizunak zure uda atalera.